



## LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

### 1. Egitasmoaren izenburua:

PAORRA GREEN HOUSE

### 2. Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2020

### 3. Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☒ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☐ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

### 4. Proiektuaren helburua:

Landa-eremu batean dagoen landetxe turistikoa da, bi ostatu-mota eskaintzen dituen: logela-estudioetako ostatu ohikoa eta basoko etxoletakoa. Hori guztia 28 hektareako lursail batean dago, eta landetxea irizpide ekologiko iraunkorrei jarraiki kudeatzen da.

### 5. Inbertsio totala: 348.000,00 euro

### 6. Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 77.959,09 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

### 7. Onuraduna:

PAORRA KOOP. ELKARTE TXIKIA

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

### 8. Lankide edo entitate partehartzaileak:

Proiektua Urkomeren aholkularitza eta laguntzaz garatu da.

## **9. Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:**

<https://goo.gl/maps/dwabvB7xYuURV8FV7>  
Aia, Gipuzkoa

## **10. Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):**

Gazteen talde batek abiarazi zuen proiektua; horiek guztiak adiskide minak dira, familia-harremanak dituzte eta proiektu propio bati ekin diote ilusio handiz. Izan ere, senide batek erositako baserriari eta bertako lurrei esker izan dute proiektua garatzeko aukera.

Hasiera batean, bertan behera utzita zegoen baserria birgaitu zuten eta lehengo jabeek erretiroa hartu zutenetik erabiltzen ez ziren lursailak leheneratu zituzten, turismo-ostatuaren moldean oinarrituriko proiektu bati ekiteko eta, bezeroen egonaldian, euskal baserri tradizional baten bizimoduarekin bat egiteko.

Landetxeak hainbat motatako ostatua eskaintzen du: 2/4 lagunentzako ohiko logelak (5), 6 lagunentzako estudioa (1) eta 8 lagunentzako gela partekatua (1), bai eta gosaria eta aisialdiko jarduerak ere.

Kirol- eta kultura-jarduerak ere eskaintzen dituzte, landetxean bertan eta inguruetan egiteko (surfa, ibilaldiak, yoga, Pagoeta, Agorregi, flysch-a...).

Bertoko produktu ekologikoak eskaintzen dituen denda ere badago landetxean.

Gainera, 28 ha-ko azalera, laboreak, belardiak eta basoak daude, eta lursail horietan, lurra modu ekologikoan landuko dute, eta animalia eta landare autoktonoak haziko dituzte.

Haritz, akazia, pago eta beste espezie autoktono batzuek osaturiko basoan, bezeroek lasaitzeko aukera izango dute eta naturaz gozatzeko ibilaldi luzeak egin ahalko dituzte.

Proiektuaren beharrei erantzuteko, energia berriztagarriak hautatu dituzte sustatzaileek, hala nola biomasa eta eguzki-energia, energia-beharrak ahalik eta gehien murriztuta.

Lursailek eskaintzen dizkieten baliabideak erabiliko dituzte sustatzaileek, hala nola biomasa eta beroa ekoizteko egurra, eta baserria betidanik hornitu duen iturburuko ura, araztegi txiki bat instalatuta, egun indarrean dagoen araudia betetzeko.

## **11. Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):**

- Bertan behera eta erabili gabe zeuden baserri bat eta 28 ha-ko azalerako lursailak berreskuratzea.



- Tokiko hornitzaileekiko lankidetzan aritzea.
- Beharrezko lan guztiak egiterakoan, tokiko hornitzaileak kontratatzeari lehentasuna ematea.
- Inguruko tokiek eskaintzen dituzten baliabideak bezeroei eskaintzea: Pagoeta, Agorregi, tokiko gastronomia...
- Ostatu-mota guztiak kontuan hartuta, 48 plaza sortzea, udalerriko nahiz eskualdeko turismo-ostatuaren eskaintza handituko dela.
- Genero-berdintasunari egindako ekarpena: 4 lanpostu sortu dira eta horietako 2 emakumeek betetzen dituzte.
- Ingurumen-iraunkortasuna zaintzea, energia berriztagarriak erabiliz, hala nola biomasa eta eguzki-energia.